

Literatura

Herta Müller Nobel Sarira bidaia

Ez zegoen faboritoen artean, ezustekoa izan zen: Herta Müllerrek Literatura Nobel Saria irabazi izanak hautsak harrotu ditu Errumanian. Alemanieraz mintzatzen den gutxiengokoa, Ceaucescuren diktaduratik ihes egin zuen Alemaniara, baina han ere asko borrokatu behar izan zuen. Ezohiko idazle honen bizitzako zailtasun handi eta txikiak dituzu jarraian.

CONSTANTIN ROMAN

Liztor habia ostikoz jo zuen neska

Zenbait arrazoiengatik, Herta Müller (1953an jaioa) ezohiko Nobel sariduna da. Arrazoi horietako batzuek, nahitaez, polemika eta eztabaida sutsuak pizten dituzte, ez soilik Alemaniaren, haren adopziozko herrialdean, baita Errumanian ere, jaioerrian. Müller “ezohiko” irabazlea da, azken 100 urteetan hamabi emakumek soilik lortu dutelako Literatura Nobel Saria. Gainera, Banat probintziako suabiar alemanen gutxiengokoa da Müller; alegia, arazo asko izan dituen Alemaniako gutxiengo etniko batekoa.

Horrez gain, Nobel Saria Solzhenitsyni eman ziotenetik, ez zaio sari hori eman Ekialdeko Europako diktaduraren baten menpeko errepresioa jorratu duen inori, eta horregatik bakarrik, Müllerren aukuraketa esanguratsua da.

Azkenik, errumaniar ikuspegitik, Müller txiki izatearen konplexua apenas onartzen duen herrialde batetik dator (Belgika edo Irlanda bezala, edo, agian Euskal Herria), oso gutxitan ulertua eta askotan gaizki ulertua izan den herrialde batetik. Bere literatura ekoizpenari esker, bederen, Müllerrek pertzepzio hori alda dezake: Nobel Sarirako izendatua izateagatik soilik, Errumania albiste da, eta albiste horrek zerikusi gutxi du iraganeko estereotipoekin. Banpiroekin, umezurtegiekin, giza trafikoarekin, giza eskubideen urraketaekin eta antzeko-

ekin lotu izan da herrialdea orain arte. Nicolae Ceaucescu zapatari-diktadorearen amaieratik –“Karpatoetako jenioa” esaten zioten hura zuritzen zutenek (bai, horrelaxe esaten zioten)–, Errumania modernoak dilema honi egin behar dio aurre: ez hainbeste iraganari *aurre egitea* eta onartzea, baizik eta iragan hori *nola estali* eta atzean utzi. Testuinguru horretan, Müller bazter nahaslea da, gai hori jorratzen duelako, eta zuzen-zuzenean aurre egiten dielako aldaketak egiteko gai izan baina horretarako adorerik ez dutenei: Müller liztor habia ostikatu zuen neska da!



Herta Müllerren herrikideen jazarpena II. Mundu Gerraren ondoren

1930eko hamarkadako ekonomia depresioaren ondoren, errumaniar-aleman askok nazional-sozialismoa hartu zuten eredu. Reichek kanpo bizi ziren alemaniar gutxiengoak (Volksdeutsche) bereganatu zituen Hitlerrek, eta errumaniar-alemaniarrek Alemaniako armadetan borrokatu ziren ekialdeko frontean, Errumaniako nazionalitateari eutsita. Hertaren aita bizi-

rik atera zen gerratik, ama Siberiara bidali zuten, eta gainerako senideak Baragan ordokietara erbesteratu zituzten, Danubio Beheko estepa gogor eta babesgabeetara. Han, desjabetutako errumaniar nekazariak lohizko etxoletan bizi ziren, Paleolitoan bezala. Lurra

Artikulu honen egileari buruz



Constantin Romanen biografiak, zenbait alorretan, lerro paraleloa marrazten du Herta Müllerrenarekin: Errumaniatik erbestera joan zen Ceaucescuren diktaduran eta Londresen bizi da egun. Hainbat alorretan lan egindakoa, azpimarratzekoak dira geodinamikaren alorrean egin dituen ekarpenak, plaken tektonika ulertzeko kontzeptu berriak garatu baitzituen. Literaturari dagokionez, *Blouse Roumaine* antologiaren egile

lea da. Liburu erraldoi horretan bildu zituen Errumaniako emakumezko idazleen biografia, testu eta erreferentzia ugari. Euskal kulturarekin ere interes bizia du: Bernardo Atxagaren eta Kirmen Uriberen poemak itzuli ditu errumanierara; eta, besteak beste, Ignacio Zuloagak eta Eduardo Txillidak Errumaniarekin izandako harremana ikertu du.

eta etxeak konfiskatu zizkieten eta ez zieten Banatera itzultzen utzi 1953ra arte, bizitza hutsetik hastera. Herta Müller urte horretan bertan jaio zen, eta aldi horrek oso eragin handia izan zuen berarengan. Garai horiek gordin-gordin deskribatzen ditu idazleak: “Nire familia, kide bakoitzak uharte batean bezala bizi zuen bere barne bizitza pribatua. 1950eko hamarkadan, estalinismoaren garaian, horrelakoa zen bizitza kale nagusiak asfaltorik ere ez zuen herrixka honetan. Baina, bakartuta egon arren, herrixka ezin zen natura erreserba baten moduko zerbait izan eta ezin zuen politikaren gorabeheretatik isolatuta egon. Hemen, hiruzpalau aktibista politikok dena kontrolpean zuten. Hiritik etorritakoak ziren. Ikasten amaitu ondoren bidali zituzten, beren kontrolatzaile ibilbidea hasteko, norik mehatxu, galdeketa eta atxiloketa gehiago egingo. 405 etxeko eta 1.500 biztanleko herrixka zen gurea. Bakoitza bere gauzez baino ez zen arduratzen, eta beldurrez bizi ginen. Inor ez zen ausartzen horretaz hitz egiten. Beldurraren esanahia ulertzeko oso ume txikia nintzen arren, beldurraren sentimendua errotu zen nigan. Nire familiako guztiak gaitz berak jota zeuden”.

1968an, Müllerrek 15 urte zituenean, errusiar tankeek Txekoslovakia inbaditu zuten. Une horretan sentitu zuen Müllerrek zerbait egin behar zuela. Beraz, alemaneraz mintzo ziren ikasleen elkarte klandestino batean sartu zen, Aktionsgruppe Banat izenekoan. Seguritate berehala infiltratu zen elkartean. Gero, atxiloketak, galdeketak eta etengabeko zaintza etorri ziren. Alemaniako literatura irakurtzea eta kantu herrikoiak abestea ekintza susmagarriak ziren zerbitzu sekretuentzat, eta errepresen egiten zituzten. Une horretatik aurrera, Müller Seguritatearen jomuga izan zen. Azkenean, Timisoarako Unibertsitatean lizentziatu zen, eta irakasle bihurtu. Baina Seguritateak kolaboratzaile izateko eskatu, Müllerrek uko egin, eta lanpostua galdu zuen. Ogibiderik

gabe geratu zen: “Egun batean, ile-apaindegira nindoala, norbaitek besotik heldu zidan bat-batean: polizia zen, eta inguruko etxebizitza bloke bateko satora eraman ninduen. Han, hiru gizon zeuden nire zain. Haien buru zela zirudienak leporatu zidan, besteak beste, arabiar ikasleen emagalduta izatea, kosmetikoen truke [erregimen komunistan, funtsezkotzat jotzen ez ziren edertasun produktuak ez zeuden dendetan]. Esan nion ez nuela arabiar ikaslerik ezagutzen, baina berak hogeire aurkituko zituela erantzun zidan, nire aurka leku-kotza emateko. Gero, polizia argalak atea ireki zuen, joaten uzteko, nire nortasun agiria lurre-ra bota zuen eta ostikada bat eman zidan atzealdean: belar gainean erori nintzen, zuhaixka batzuen atzean. Zakur batek bezala egin nuen botaka, burua altxatu gabe”.

Ceaucescuren Errumanian, erbestera joatea zen Herta Müllerren aukera bakarra. Ez zen “errefuxiatu ekonomikoa”, errefuxiatu politikoa zen, alemaniar leinuko errumaniarra, bere balio moralengatik eta diktadurari egoskor aurre egiteagatik jazarria. Errumaniatik 35 urte zituela alde egitean, Müllerren ekipajea ez zen mugatu arauak agindutako 80 kiloetara. Askoz maleta astunagoa, ikusezina, atera baitzuen gaulan, diktaduraren menpe jasandako errepresioaren oroimen mingarritz betetako maleta.

Müllerren hizkuntza kodetua

Ez da harriztekoa Herta Müllerren eleberrietan, Errumaniatik izandako bizitza, erbesteraren minaz koloreztatutako hizkuntza deskribatzea. “Autofikzio” esaten die egileak eleberri horiei: “Nire ahotsa entzun gabe abestu nuen. Zalantza betetako beldurretik erabateko ziurtasunez beteriko beldurrean amildu nintzen. Urak abesten duen moduan abes nezakeen. Agian, nire amonaren dementzia kantaritik zetorkidan doinua. Agian, amonak burua galtzean galdutako doinuak nekizkien. Agian, haren garunean lugorrian zeudenek nire ezpainetara heldu behar zuten” (Herta Müller, *Aran berdeen lurra*).

Berehala, haserre azaleratzen du Errumaniatik alde egitera behartu zutelako: “[Nire galdetzaileak] hark hildako guztien zama eraman zezan nahi nuen. Haren ile motzak hilotz bateko soropil ebaki berriaren usaina izatea nahi nuen, bizarginarenera joango zen orotan. Haren krimenak hatsa jariatzea nahi nuen, lanostean ilobarekin mahaira esertzean. Haurrak pastela ematen zioten hatzei biguina izatea” (Herta Müller, *Aran berdeen lurra*).

Eta berriro, elkarrizketa batean, haurtzaroko herrixkan erabilitako “errugabetasunaren hizkuntza” gogoratzen du: “Hazi nintzen herrixkan ez zegoen errumaniarrik. Errumaniera eskolan ikasi nuen, atzerriko hizkuntzatzat...

Timisoaran, suabieraz eta errumanieraz idazten zen, baina errumaniera komunikaziorako hizkuntza zen. Bi hizkuntza horiez gain, alderdi komunistaren *langue de bois* zegoen, alderdiak hizkuntza ere bereganatu egin baitzuen. Hori dela eta, oso arreta handia izaten genuen ideologia politikoaz kutsatutako edo faltsututako hitzak edo kontzeptuak ez erabiltzeko. Gure errealitatea deskribatzeko, hizkuntza errugabearen bila genbiltzan etengabe”.

Errumaniaren piztia beltza

Errumaniako errumaniarrek, oraindik ohitura komunisten ondorioen menpe, beste metodo batzuk zituzten Müllerri literaturan berez zegokion lekua ukatzeko: “Alemanez idazten du; beraz, ez da errumaniar idazlea...”.

*Langue de bois*aren bidez arrazoiak adieraztea ezinezkoa izan zenean, idazlea ez aipatzea izan zen bidea, erresistentzia sistema askoz eraginkorragoa, Müller behin eta berriz uzten baitzuten Errumaniako literatur-kritikako liburuetatik edo antologietatik kanpo, baita Ceausescu hil zenetik bi hamarkada eta gero ere.

Hertaren literatura ekarpena ez zen aipatu ere egin *România Literară* Errumaniako idazleen zerrendan. Diktadura amaitu zenetik hamahiru urte ingurura egindako Errumaniako idazleen lau liburukiko hiztegia ere ez zuten sartu, ezta Errumaniako idazle erbesterratu azken-azken sintesia ere. Hori guztia, zalantzarik gabe, Errumaniaren kalterako da, Müllerren fikzioak sustrai sakonak baititu Errumaniako lurraldean eta historia sozio-politikoan.

Are okerragoak dira Paul Gomaren kexak. Honela zioen idazle anti-komunista eta Errumaniako *Charta 77* adierazpenaren bultzatzaile horrek –bai, horrelakorik izan zen, eta hamabi bat pertsonak sinatu zuten–: “Alemanian liburuak idatzi nituen Herta Müllerrek baino lehenago... Zergatik ez zuen idatzi liburu bat bere amak sobietar gulagetan jandakoari buruz? Zergatik ez zuen *Charta 77* adierazpena sinatu? Artean, 24 urte zituen; bazuen gauzak ulertzeko adina!”.

Bukaresteko literatura zirkulu gaiztotu eta egozentrikoetan inbidiaz hartu zuten albisteak: “Noski, pozten gara hain idazle gazteak saria eskuratu izanaz”, dio Errumaniako Idazle Elkarteko presidentek –diktadura estalinistaren garaian 40 urteko ibilbide arrakastatsua izan zuen idazlea bera–. Gerontokraziak indar handia du Errumanian oraindik ere, eta haienztat 56 urteko Herta “oso gaztea” da eta itxa-

ron egin beharko du! Errumaniako gazte guztiek badakite hori, eta hanka eginez erantzuten dute: zenbait milioi gazte atzerrira joan dira Ceausescu fusilatu ondoren.

Frankfurteko liburu azokan, Errumaniako standean (140 metro koadrokoa), kopeta zimurtu zuten: “Ustekabean harrapatu gaitu... standa aspalditik antolatuta genuen, Nobel Saria eman ziotela jakin baino askoz lehenago”, nolabait aditzera emanez ezin zutela ezer aldatu: ez dute autonomiarik Bukarestetik agindutakoa aldatzeko; bestela, zigorra jasotzeko arriskua izango lukete baita nork bere “literatura” ondarea eta abantailak galtzekoa ere. Eta

hori “Herta... nor”-engatik? Ezin zuten Müller standera gonbidatu ere, han zituzten liburuak sinatzeko edo kontraturen baten eskaintza jasotzeko aukera izan zezan. Ezin zuten Hertaren Alemaniako argitaratzailea gonbidatu ere, zerbait esatera... Errumania iraganeko ohituretan ainguratuta dago.

Urte luzez baztertu dute Herta Müller Errumanian: Ceausescu hil eta hamahiru urtera egindako Errumaniako idazleen hiztegia ez zen haren izena ageri

Desjabetuen hizkuntza

“Errumaniar emakumeak? Zer errumaniar emakume?”, galdetu zuen britainiar argitaratzaile batek Nobel Saria iragarri aurretik; eta mespretxuz gehitu zuen: “Hiru baino ez ditut ezagutzen!”.

Ez nion galdetu zein ezagutzen zituen, badakidalako anglosaxoiek bereari baino ez diotela erreparatzen eta ez dituztela beren kulturatik kanpoko balioak aintzat hartzen. Nolanahi ere, animatze aldera, honela erantzun nion: “Hasteko, ez dago gaizki!”.

Orain, hiruren ordeaz lau emakumeren berri izango du. Hertak Nobel Saria irabazi izanak aldatuko al du joera, eta jarriko al du Errumania dagokion lekuan? Errumaniak eta errumaniarrek ez dute beren bakartasuna batere gogoko, baina, hein batean, beraien errua da. Herta Müller erbesteratutako emakume txiki eta argalak ez zuen amorerik eman, eta haren setak jende asko eta asko gogaitu zuen: baliteke salbuespena baino ez izatea. Izan ere, *liștor habia ostikoz jo zuen neska* da.

Literatura Nobel Sariaren epaimahaiaren iritziz, hau du bereizgarri: desjabetuen paisaia poesiaren kontzentrazioaz eta prosaren argitasunez deskribatzen du.

Multumesc (eskerrik asko), eta Jainkoak bedeinka zaitzala, Herta: badakit eginkizun izugarria dela, baina itxaropen berria egon beharko luke desjabetu guztientzat! ■

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean bertsio luzea eta Interneteko loturak.